

EUSKALTZAINDIA, *ICOS*EN XII. BILTZARREAN

Pisa, 2005-IX-Ietik 4ra

Euskaltzaindiak parte hartu zuen Pisan (Italia) egin zen ICOS (International Council of Onomastic Sciences) elkartearen XII. Biltzarrean. «Izenak denboran eta espazioan» izenburuean burutu zen biltzar horrek abuztuaren 28an hasi eta irailaren 4ra bitartean iraun zuen. Euskaltzaindikoko partaidetza Onomastika batzordearen bidez gauzatu zen eta lau kidek txosten bana aurkeztu zuten, irailaren 1 eta 2an.

Hauek dira *ICOS*en XXII. Biltzarrean parte hartu zuten Onomastika batzordeko kideak eta irakurri zituzten txostenen izenburuak:

- Irailaren 1ean, Patxi Salaberri: «Nicknames, origin of some of the family names in Basque». Erdi Aroan erabiltzen ziren goitizenak euskaraz nola deitura bihurtu diren (*Andia, Gorria...*).
- Irailaren 2an, Henrike Knörr: «Satznamen dans la toponymie du Pays Basque. Satznamen»-ak aztertu dira, hots, esaldiz osatutako toponimo euskaldunak, *Euridakarrena*, adibidez.
- Irailaren 2an, Jose Luis Lizundia: «La normalisation onomastique à Euskal Irrati Telebista (EiTB)». Euskal Irrati-Telebistan onomastikaren normalizazioa nola gauzatzen ari den.
- Irailaren 2an, Mikel Gorrotxategi: «La répression et la traduction des noms dans la dictature de F. Franco». Euskarazko pertsona-izenen bilakaera azterten da, II. Errepublikatik hasi eta Francoren diktaduran zehar.

Euskaltzaindikoko kideekin batera, 22 herri eta nazio ezberdinetako partaideak izan ziren Pisan, eta 48 txosten irakurri (hogei ingelesez, zazpi frantsesez, hamalau italieraz eta beste zazpi alemanez). Biltzarrak sei atal izan zituen: Onomastika eta hizkuntzalaritza; Onomastika eta gizartea; Literatura onomastikoa; Ponte-izenak; Izen geografikoak; eta bestelako izenak. Horretaz gain, sail bereziak ere izan zituen Biltzarrak: Onomastikak eta didaktika; Onomastika eta informatika; Onomastika eta komunikabideak; Onomastika terminologia; eta ekimen eta proiektu berriak.

*ICOS*en Nazioarteko Biltzarrak hiru urterik behin burutzen dira. Azken aldikoei dagokienez: 1999. urtean, Santiago de Compostelan (Galizia) egin zen eta, 2002an, Uppsalan (Suedian).